

Absurdua

Felipe Juaristi

"Abeslari burusoila"
Eugene Ionesco
euskaratzailea: Jon Muñoz Otaegi
Ibaizabal, 2001

Aspaldi esanda utzi nuen apatridak gustatzen zaizkidala, apatrida errumaniarrak batez ere, izan ere apatri da batek, denik eta apatridena, denik eta apatridenetan apatridena baldin bada ere, aberri bat izan du lehenago, bera ukatzeko edo bertatik ihes egiteko. Apatrida errumaniarrek (Cioranek, Paul Celanek) Errumania noski; apatrida euskaldunek Euskal Herria bezalaxe. Baina desberdina da. Errumania bazen zerbait, eta Bigarren Mundu Gerra Ondoren auskalo zer bilakatu zen; puska handiak kendu zizkioten berari. Batzuek diotenez, apatrida izatea absurdua da guztiz. Logikaren arrazoiak gidaturik diote denok dugula lurralde bat, denok garela nonbaitekoak, eta nahiz uko egin gure sorterriari, sorterria hor dagoela betiko. Halakoek ez dakite batek uka dezakeela bere sorterria nahi duen bezainbeste, sorterriak ere bata nahi duen beste ukatzen baitu. Halaxe dira kontuak. Askotan sorterriak berak egiten digu lehenago uko. Konturatzerako ez gara: ez hemengoak ez hangoak ez gara, ez nongoak ez inongoak ere. Ez gara eta kito. Noski, honelako argudiorik ez dute onartuko logikaren arrazoiak gidaturik dabiltzan jende prestu zintzo onbera-berakoek, denok garela ezer esango baitute, denok garela, denok garela inongoak. Ez nago ados, izatea bezalakoxea baita ez izatea. Edo Sokrate baino lehenagoko filosofo hark, Heraklitok hain zuzen, esan zuen bezala: "Tximistargiak mundu osoa hartzen du mende". Zer esan nahi ote zuen? Liburu bat idatzi zuen ia Heideggerrek esaldia argitzeko. Denok dakigu dagoeneko logika azken muturreraino eramanda absurdu bilakatzen dela. Umeek galdera egiten dutenean bezalaxe da. "Aita, zergatik da itsasoa urdina?". Behin erantzunez gero, horra hor galera, ez baita galdera-katea geldituko, eta azkenik isildu behar, azken erantzuna absurdua delako. Baina ez dakit zer den absurduagoa, Ionescoren anzterki-lan hau, zoragarri itzulita dagoena ala Heideggerren saioa. Logika eta logikak daude, izan ere. Eta guri itsusiena tokatu dantzarako, emakume beltz, abeslari eta burusoila.

El Diario Vasco, 2002-03-02